10 -13 / GRADUONDOKO ESKAINTZA: AUKERA ETENGABEA EZAGUTZA BERRITZEKO

18 -19 / DAVID SANCHEZ DOCTOR Y PROFESOR EN LA FCE



22 / ATLANTAKO MEMORIAK: SEI HILABETEKO ESPERIENTZIA ESTATU BATUETAN

# MUniversitas

MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN ALDIZKARIA | 2008ko uda | 9. zenbakia




## MU GRADUONDOKO ESKAINTZA

*CONOCIMIENTO SIN FECHA DE CADUCIDAD*

MONDRAGON

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Entitate laguntzailea
Entidad patrocinadora
CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

2008
berrikuntza urtea
euskadi
innovation year

MONDRAGON UNIBERTSITATEA 10 URTE
zurekin, geroa lantzen


KM
kulturunea
Koldo Mitxelena Kulturunea
KOLDO MITXELENA Kulturunean egiten diren ekitaldiak interneten bidez ikus ditzakegu, dohaineko RealVideo programa instalatu bezain pronto ikus:
www.gipuzkoa.net/kultura
KOLDO MITXELENA Kulturuneko Liburutegiko liburuak zure esku daude; zure ohiko liburutegian eska ditzakezu, bertako liburuzainek guri eskatuko dizkigute eta biharamunean zurean izango dira. Zehaztasun gehiago: lam-pib@gipuzkoa.net
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura eta Euskara Departamentua
Departamento de Cultura y Euskera
Koldo Mitxelena Kulturunea. Urdaneta 9. 20006 Donostia. www.gipuzkoakultura.net


DESCUBRE LA FOTODEPILACIÓN CON angela
FOTODEPILACIÓN
GRUPO 1
35€/sesión
Entrecejo* Dedos* Labio superior* Línea alba* Mejillas* Mentón* Orejas* Patillas* Nariz*
GRUPO 2
55€/sesión
Antebrazo* Axilas* Barbilla* Base barba* Nuca* Ingles* Lumbares* Manos* Pies*
Medias piernas* Abdomen* brazo* Cara* Gluteos* Hombros* Pecho* Pubis*
95€/sesión
GRUPO 3
Espalda* piernas completas* tórax completo*
195€/sesión
GRUPO 4
*Precios por sesión y zona, IVA incluido
Ven e infórmate en nuestro centro, y podrás olvidarte del vello y colgar de una vez por todas la cuchilla.
www.angelafotodepilación.com
ANGELA ESTETIKA ZENTRUA
C/ Ferrerias 35 943798823
ARRASATE
angela estetika zentrua

## AURKIBIDEA

03 Editoriala
04-07 Berriak
08 Iritzia · Garikoitz Araolaza
10-13 Erreportajea
10-13 Erreportajea
14 Alecop
15 GEP · Goi Eskola Politeknikoa
16 EZF · Enpresa Zientzien Fakultatea
17 HUHEZI · Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
18-19 Elkarrizketa
20 Erakundeak · Garabide
21 Nazioarteratzea
22 PTG
23 Doktore tesiak
24 MU kirol zerbitzua
25 Bisitak
26 Agenda

# EZAGUTZAK EZ DU MUGARIK, EZTA IRAUNGITZE-DATARIK ERE

Jaiotzen garenetik —haurtzaroan, nerabe garaian, heldutasunean— adineko pertsona bilakatzen garen unera arte, gure burua janzten dugu esperientziaz, ezagutza partekatuta, alegia, bizitza. Izan ere, ezagutzaren prozesuak ez du etenik. Prozesu horretan bizitza esperientziak, familiak,eskolak eta unibertsitateak badute zerikusia. Baita gure familiak eta lagunek, lanak eta lanetik kanpo dugun bizitzak. Ezagutzak ez du mugarik, ezta iraungitze-datarik ere, eta belakiak ura hartzen duen modura, jasotzen dugu guk ezagutza hori. Askotan eta askok, unibertsitate ikasketak amaitutakoan uste dute iritsi direla prozesu baten amaierara. Izan daiteke aldi edo fase baten bukaerara iritsi direla, eta beste baten atarian daudela. Gaur egun, unibertsitate ikasketak amaitu ondoren, gradua egin ondoren, hamaika aukera daude, espezializatzeko, ezagutza handitzeko eta unibertsitatearen komunitate horretako parte izaten jarraitzeko. Lanean hasteak ez du etenik ekartzen. Langileek eta profesionalek eskura dituzte heziketa iraunkorreko ikastaroak, ikasketak, masterrak eta aditu tituluak. Mondragon Unibertsitatean aukera hori gero eta handiagoa da. Gero eta gehiago dira karrera amaitu ostean ikasten jarraitzen dutenak, unibertsitatearen laguntzarekin ibilbide profesionala bideratzen dutenak. Izan ere, hori da ikasketa horien helburuetako bat. Iaz, Mondragon Unibertsitatean 3.500 pertsonak egin zituzten prestakuntza iraunkorreko ikastaroak eta graduondoak, eta joera da kopurua handitzen joatea. Horrexegatik, eskaintzak ere gora egin du. Eskaintza horren gaineko erreportajea aurki dezakezue MUniversitas aldizkariaren bederatzigarren zenbaki honetan. Gainera, ezagutza prozesuaz jarduteko aukera eskaintzen zaidan honetan, ez nuke aipatu gabe utzi nahi teknologia berriek ikasketa prozesuari eskaintzen dioten aukeraz. Lanean dihardute gure unibertsitatean software soziala abiatzeko, Web 2.0 deritzona aplikatzen hasteko. Jakintza konpartitzeak onura besterik ez dakarrelako. Irakasleak bitartekoak jarri behar ditu ezagutza jasotzeko, bidea erraztu behar die ikasleei, eta Web 2.0 eremuko erremintek aukera hori eskaintzen dute. David Sánchez doktore eta irakaslea ari da lan horretan, eta aldizkarian hari egindako elkarrizketa irakurtzeko aukera izango duzue.

> *“Gero eta gehiago dira karrera amaitu ostean unibertsitatearen laguntzarekin ibilbide profesionala bideratzen dutenak”*

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

**MUniversitas**

**Argitaratzailea** Mondragon Unibertsitatea • Loramendi 4 • (23. p.k.) ARRASATE 20500 (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 21 85 | Faxa: 943 71 21 93 | E-posta: info@mondragon.edu

**Koordinatzailea** Arteman Komunikazioa | **Erredakzio kontseilua** Joxe Aranzabal, Mila Arregi, Susana Azpilikueta eta Idoia Peñakoba
**Laguntzaileak** Jose Luis Abaunz, Nuria Agirre, Gentzane Aldekoa, Jon Altuna, Mariam Bilbatua, Koldo Etxezarreta, Josu Galarza, Mikel Mesonero, Xabier Sagarna, David Sanchez
**Tirada** 5.500 ale | **Lege gordailua** SS-1360/05 | **Diseinua eta publizitatea** Arteman Komunikazioa
**Azaleko ilustrazioa** Lorena Martínez | **Argazkiak** M.U / Arteman Komunikazioa | **Moldiztegia** Gertu (Oñati)

## EKINTZAILEAK BERBAGAI

Enpresa Zientzien Fakultatean, José Ramón García, Blusens enpresako lehendakari eta kontseilaria entzuteko aukera izan zen. Ekintzailetasunaren gainean jardun zuen. Blusens enpresa 2002an sortu zuen eta bost urtean lortu du MP3aren ekoizpenean lider izatea Espainian. Azken belaunaldiko elektronikako kontsumo produktuetan espezializatuta dago Blusens enpresa. Soinua eta irudia ikus eta entzunarazten dituzten eramangarriak ekoizteaz gainera, etxe digitalek behar dituzten produktuak ere egiten dituzte. Hitzaldian, xehetasun handiz azaldu zituen marketin eta komunikazioaren arloan egin dituzten eta egiten diharduten ekintzak.

## CONVENIO CON LA UNIVERSIDAD DE PUERTO RICO

Mondragon Unibertsitatea y la Universidad de Puerto Rico han firmado un convenio general de colaboración académica e intercambio para establecer las bases específicas para llevar a cabo nuevas experiencias académicas, científicas y culturales entre sus profesores y estudiantes. La colaboración entre ambas universidades se establecerá especialmente en el intercambio de profesores y estudiantes, y en el intercambio de material.

El acuerdo pretende proporcionar oportunidades para el desarrollo profesional de personal docente de ambas universidades, a través de la utilización de períodos sabáticos y otro tipo de licencias.



# MU E INNOBASQUE IMPULSAN LA FORMACIÓN SUPERIOR PARA LA DIRECCIÓN DE PROYECTOS

Mondragon Unibertsitatea e Innobasque han firmado una alianza estratégica que convertirá a Euskadi en referente europeo de la educación superior para la dirección de proyectos, área de gestión crítica para la innovación, que cobra cada vez mayor importancia en empresas y organizaciones.

**SEGUNDA GRAN TRANSFORMACIÓN** Promover e impulsar la segunda gran transformación económica y social del País Vasco: ese es el objetivo último que subyace detrás de esta alianza firmada, cuya aplicación más directa corresponde al ámbito de la innovación. Para ello, trabajarán activamente en el impulso y desarrollo de esta revolución.

Las actuaciones que se realizarán en el marco del acuerdo de colaboración se centrarán, globalmente, en los siguientes ámbitos: actividades de movilización social y actividades dirigidas a promocionar durante 2008 el año de la innovación. Ambas entidades trabajarán conjuntamente en la promoción y difusión de actividades en el 2008, año de la innovación en Euskadi; actividades enmarcadas dentro de otras áreas de actividad conjunta, tales como: innovación tecnológica, innovación social, emprendizaje, internacionalización del sistema vasco de innovación y transformación empresarial.

**EUSKADI, REFERENTE EN GESTIÓN** También en el marco de esta alianza, las dos entidades han concretado un primer ámbito específico de colaboración con el objetivo de “hacer de Euskadi el referente Europeo de Excelencia en la Gestión de Proyectos, soporte crítico para ser referente europeo de Innovación”.

El ámbito de la formación en gestión y dirección de proyectos, es un área que cobra cada vez mayor importancia en empresas y organizaciones. Por ello, las dos entidades realizarán distintas actividades relacionadas con dicho ámbito. De hecho, las dos entidades han establecido un programa concreto de actuación que culminará en el desarrollo a partir del 2009 de un Master referente en Dirección de Proyectos que sea certificado por el organismo internacional líder mundial en esta área de la gestión.



## PRAKTIKAK ATZERRIKO ENPRESETAN

Mondragon Unibertsitateak eta Mondragon Taldeko nazioarteko sailak sinatu berri duten lankidetza-hitzarmenaren arabera, unibertsitateko ikasleek euren praktikaldiak eta karrera-amaierako proiektuak Mondragon Taldeak atzerrian dituen delegazio korporatiboetan egin ahal izango dituzte.

Hitzarmenaren helburua da unibertsitateko ikasleari aukera ematea lan-giroan jarduteko eta haien prestakuntza enpresetako atal operatiboetan osatzeko. Hitzarmenaren bidez garatuko diren praktikak eta karrera-bukaerako proiektuak Mondragon Unibertsitateko ikasketa-planaren osagai izango dira eta ikaslearen prestakuntzari lotutako aktibitateetan aplikatuko dira.

Fakultate bakoitzeko arduradun bat izendatuko da praktika-programak eta proiektu-programak garatu eta betetzeko, eta Mondragon Taldeak ere beste bat izendatuko du helburu horiekin. Praktika garaiaren ostean, egindako aktibitatearen eta haren emaitzaren ebaluazio-txostena egingo dute bi arduradunek.

Mondragon Taldeak nazioarteko sei delegazio ditu Brasilen, Errusian, Ameriketako Estatu Batuetan, Mexikon, Txinan eta Indian. Horietan guztietan 50 bat lagunek dihardute lanean. Haien lana da merkatu-ikerketak, prospekzio-analisiak, negozio-aukeren analisia eta kooperatibak atzerrian ezartzeko ikerketak egitea. Hemendik aurrera, hitzarmenari esker, Mondragon Unibertsitateko ikasleek eginkizun horietan lagunduko dute.

## ACUERDO ENTRE MU Y LA FUNDACIÓN GAZTEMPRESA

Mondragon Unibertsitatea y la Fundación Gaztempresa han firmado un acuerdo de colaboración para desarrollar programas de fomento de empresas e impulso de emprendedores.

Como consecuencia de este convenio, se pondrán en marcha dos becas por importe de 3.000 euros cada una, para realizar estudios relacionados con la innovación y el emprendizaje, así como la convocatoria de concursos de emprendizaje en ideas innovadoras, cuya cuantía ascenderá a 2.000 euros. Asimismo, el acuerdo también prevé la realización de un ciclo de conferencias relacionadas con los ámbitos que contempla el convenio.

Los emprendedores podrán estar al corriente de las posibles ayudas o subvenciones que se puedan entregar, ya que la Fundación Gaztempresa actualizará dichos datos en el portal del emprendedor de Mondragon Unibertsitatea.

PROIEKTU BERRITZAILEAK BULTZATZEKO balioko du MU eta Gaztempresa fundazioak sinatutako kolaborazio hitzarmenak.

**PROYECTO DE COLABORACIÓN** Varios alumnos de MU residentes en el Colegio Mayor Biteri han tomado parte en la iniciativa solidaria con el Sahara.



## SAHARAN IZAN DIRA BITERI IKASTETXE NAGUSIKOAK

Biteri Ikastetxe Nagusiko HAIMA batzordeak Tindouf-eko saharauiar kanpamendura bisitaldia egin du. Urte osoan garatzen eta prestatzen aritu den proiektua gauzatzera gerturatu dira Saharara.

Kanpamenduetan aurkitzen den gerra eta pertsonen kontrako minen ondorioz kaltetutakoen egoitza etxean bizi diren biztanleak izan dira proiektuaren hartzaileak, eta nola ez, baita haien seme-alaba eta senitarteko gazteenak ere. Parte-hartze interaktibo baten bitartez, ordenagailua erabiltzeko oinarrizko programak instalatzen eta erabiltzen erakutsi dizkiete, horien artean argazki digitalen gainean lan egiteko programa bat eta montajeak egiteko beste bat erabiltzen erakutsi diete.

Era berean, HAIMA batzordekoek dokumentazio lan sakona egin dute erreportaje eta erakusketa modura helarazteko asmoarekin.

# BRANDING AQUÍ Y AHORA, JORNADA EN EL KURSAAL DE DONOSTIA

El pasado 15 de mayo, se celebró en el Kursaal donostiarra la tercera edición de *Branding aquí y ahora* organizada por la Facultad de Ciencias Empresariales de Oñati y la empresa de comunicación AZK.

En la jornada a la que asistieron un centenar de personas se pudo escuchar a Leslie de Chernatony, profesor de marketing de marca y director del centro de investigación de marketing de marca en la Birmingham University Business School y a Aingeru Gabiña, director de marketing de Converse España y Portugal que presentó la experiencia de Converse en este momento en el que cumplen cien años de existencia.



En el ámbito de lo local, pudimos compartir experiencias con Peio Alcelay, coordinador general de Irizar Ormaiztegi, Maider Hormaza, directora de marketing de Kaiku y Jokin Umerez, director de marketing de Alfa.

Por la tarde, se realizó un Workshop práctico de la mano de Antonio Núñez, director de estrategia de SCPF, miembro de la National Storytelling Network y autor del libro "Será mejor que lo cuentes / Los relatos como herramientas de comunicación (Storytelling)". La jornada se desarrolló con notable éxito de público y de contenidos.

**LESLIE DE CHERNATONY** profesor de marketing de marca ofreció una interesante charla.

## IKASLE OHIEN ELKARTEA

Mondragon Unibertsitateak datorren ikasturtera begira, MUkide: Mondragon Unibertsitateko Ikasle Ohien Elkartea sortu nahi du. Elkartearen helburua da ikasle eta unibertsitatearen arteko harremana ez etetea ikasketak amaitu ondoren.

2008-09 ikasturtean hasiko dira elkarteko lehen ekintzak, eta hauen informazioa jaso eta bertan parte hartu ahal izateko, Mondragon Unibertsitateko webgunean, MUkide izeneko txokoa ireki da. Interesatuek, beren datu pertsonalak sartzeko aukera dute.

Era berean, MUkide@mondragon.edu helbidea aktibatu da elkartearekin harremanetan jarri ahal izateko.

## CONGRESO DE MATERIALES ORGANIZADO POR MU

El Congreso Nacional de Materiales de la Sociedad Española de Materiales se ha convertido en una cita bianual ineludible, en la que exponer, oír y contrastar sobre la investigación y educación en España en el campo de los materiales. En esta ocasión, celebramos esta X edición en Donostia, y decimos celebrar de forma muy consciente, porque por encima del frío de los datos, los números y los resultados, este congreso es sobre todo un lugar de encuentro humano para más de trescientas personas.

El X también es un número importante para MU, organizadora de esta edición, pues este año celebra 10 años de existencia. Una universidad joven con la característica de ser una cooperativa y con vocación de cercanía a la empresa.

Como novedad importante, esta edición del congreso estará precedida por la I Escuela de Materiales de la SEMAT. Dos ponentes de reconocido prestigio en las áreas de los Materiales para la Energía, Ricardo Santamaría (INCAR-CSIS) y en los Bio materiales, Soledad Penadés (CIC biomaGUNE), darán las claves de la investigación en esas líneas. Respecto a la estructura y contenido del congreso, éstos serán continuistas respecto a ediciones anteriores, pero con acentos tecnológicos dada la cercanía a la empresa de nuestra Universidad y con una importante componente educativa. Esto último es especialmente significativo en el actual cambio en la formación universitaria provocado por el Tratado de Bolonia.

# KULTURA EKINTZAK NAGUSI ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEAN

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEAK BERE KULTUR ASTEAK EGIN ZITUEN OÑATI ZEIN BIDASOAKO CAMPUSETAN APIRILEAN. GUNE BATEAN ZEIN BESTEAN EGITARAU ZABALAZ GOZATZEKO AUKERA IZAN ZUTEN IKASLE ETA IRAKASLEEK.



LA SEMANA CULTURAL celebrada en las facultades de Ciencias Empresariales de Oñati e Irun contó con la presencia de numerosos estudiantes y profesores.

Hitzaldiak, musika emanaldiak, erakusketak eta beste zenbait egitasmo antolatu zituzten unibertsitate komunitatearen gozamenerako eta horien erantzuna bikaina izan zen, parte hartze handiarekin eta giro bikainarekin.

Aste osoan, askotariko ekintzak egin ahal izan zituzten. Kultur asteko lehen egunean, apirilaren 14an, gastronomia eguna ospatu zuten. Pintxo lehiaketarekin, eta Kalimotxo zein garagardo dastaketarekin.

**MUSIKA ETA KIROLA** Bigarren egunean, sexualitatearen eguna egin zuten. Besteak beste, Tuppersex bilera "La maleta roja" eta sextabaida antolatuz.

Gainera, musika eta munduko doinuak ere ez ziren falta izan. Hain justu ere, hirugarren egunean musika izan zen protagonista nagusia. Perkusio tailerrarekin eta Dugukolo taldearen erakustaldiarekin.

Kirolak ere izan zuen egun berezi eta propioa, herri kirolen txapelketarekin, bazkari herrikoiarekin eta mus txapelketarekin. Mus jokalariek unibertsitatean dagoen maila erakusteko aukera izan zuten.

Azken egunean, berriz, film laburrak eskaini zituzten. Hori guztia Oñatiko Campusean egin zen. Bidasoako Campusean, ostera, perkusio tailerra, pintxo lehiaketa eta film laburrak izan zituzten apirilaren 18an.

# FAKULTATEETAKO JAIAK

San Pankrazio, Txomin Txapel eta ETEOko jaiak giro onean ospatu ziren maiatzean. Arrasateko, Eskoriatzako, Oñatiko eta Bidasoako fakultateetako jai nagusietan hamaika ekitaldi antolatu zituzten unibertsitate komunitatearen gozamenerako.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko festa nagusia maiatzaren 16an ospatu zen. Eguerdiko hamabietan egin zen Txomin Txapelen jaitsiera eta jarraian irakurri zuten pregoia. Gero, bazkari herrikoa egin zuten eta batukada ere ez zen falta izan. Egunari amaiera emateko, Mondragon Unibertsitateko ikaslez osaturiko musika taldeen kontzertua egin zen Eskoriatzako herriko plazan. Bertan izan ziren; Hautsi, Emon, Descreados eta Non ote? musika taldeak.

ETEOko jai nagusia ere maiatzaren 16an ospatu zen. Goizeko 11etan egin zuten txupinazoa eta ondoren futbolin txapelketa, trikipoteoa, bazkari herrikoia eta beste zenbait ekitaldi ez ziren falta izan. Arratsaldean musika izan zen nagusi Oñatiko fakultateko festan. Izan ere, batukadarekin poteoa egin zuten eta gaueko hamarretatik aurrera musika kontzertuak girotu zuen gaua.

San Pankrazio eguna, berriz, maiatzaren 10ean ospatu zen, eta egitarauaren barruan, arrautza jaurtiketako lehiaketaren VIII.edizioa burutu zen. Ekimen hau diseinu industrialeko irakasle talde batek jarri zuen martxan, ikasleen berrikuntzarako eta sormenerako gaitasunak suspertzeko helburuarekin eta urtetik urtera indar gehiago hartuz joan da. Aurten, 90 inguru izan dira parte hartu dutenak, 3-4ko taldeak osatuz. Horietatik 80 ikasleak eta gainerakoak Eskolako langileak.

# EDUCACIÓN Y PARADIGMA 2.0

En los últimos tres años, se ha popularizado un término en Internet, el de web 2.0. Sin embargo, la clave de tal paradigma no es nueva, no nació en 2005, sino que se halla en la esencia misma de Internet y la red, presente ya desde el siglo pasado, desde los años 90: la aparición de un canal de comunicación realmente bidireccional y masivo, en el que los participantes no son sólo receptores sino productores.

Lo que ha ocurrido es que esa promesa se ha ido concretando poco a poco, de lo potencial, al crecimiento exponencial. Y es en estos últimos años en los que hemos visto que miles de internautas cargando fotos, videos o marcando lugares en el mapa (1), pueden aportar entre todos más conocimiento e información que cualquier organización o medio formal. Por ello, las organizaciones y productos de más éxito en el entorno 2.0 son aquellos que saben canalizar ese aporte del consumidor productor, que no sólo dan sino que reciben, agregan conocimiento, y comparten el resultado.

El mundo de la enseñanza no es ajeno a este cambio de paradigma. Conceptos como el Project Based Learning (PBL), aplicado en Mondragon Unibertsitatea, o el proyecto Mendeberri (2)pretenden ir más allá del modelo clásico del profesor que suelta su rollo, y los alumnos que toman apuntes. La participación activa del alumno en la clase, y más allá de la clase, en el producto final (el proyecto concreto de que cada iniciativa PBL por ejemplo), son pasos en la dirección 2.0, sin duda. Se trata de entender el conocimiento como producto de una actividad de agregación e intercambio, no como un paquete finito que se transmite desde el punto A (la atalaya del profesor) a los puntos B (los pupitres de los alumnos).

Creo que es el momento, además, de ir más allá de los cambios metodológicos intramuros. Compartir en clase está bien,




ARTEMAN

*“ Se trata de entender el conocimiento como producto de una actividad de agregación e intercambio”*



**Garikoitz Araolaza**
Director
Técnico de
CodeSyntax

pero en el nuevo contexto tecnológico hay que ir (se puede ir) más allá del campus y tratar el nuevo concepto en la red. Se puede empezar modestamente, mediante un blog en el que un profesor cuenta su experiencia, comparte sus conocimientos, o plantea allí mismo las preguntas y retos de un ejemplo PBL dado... O se puede hacer más estructuradamente, como ha hecho el Instituto Tecnológico de Massachussetts con la iniciativa Open Courseware (3), abrir sus cursos a la red, libremente. Un paso más decidido en este sentido es el de compartir radicalmente, no sólo mediante la divulgación del conocimiento, sino mediante la liberación de ese contenido. La iniciativa PLOS (4), Biblioteca Libre de las Ciencias, es un ejemplo de esta última tendencia: el conocimiento académico, libre, en revistas publicadas en la red no sujetas a *copyright*.

Creo que el ecosistema de Internet no hubiera sido posible sin la aportación decisiva del software libre y de su licencia de uso y explotación abierta, la GPL (5). La tecnología libre ha sido una de las claves de la explosión 2.0 en la red, y creo, por tanto, que el conocimiento y la cultura libre pueden jugar un papel igualmente esencial en la formulación de una educación 2.0. No lo dijo un científico, sino un dramaturgo (George Bernard Shaw), pero no deja de ser físicamente exacto lo que describe esta frase: si yo tengo una manzana y tú otra, y las intercambiamos, terminamos con una manzana cada uno; pero si yo tengo una idea y tú otra, y las intercambiamos, cada uno acaba con dos ideas en su poder.

Ejemplos pueden ser:

(1) Flickr.com, Youtube.com y Tagzania.com

(2) http://www.mondragon.edu/estudios/modelodeaprendizaje/bfqueesmendeberri

(3) http://ocw.mit.edu

(4) http://www.plos.org

(5)http://es.wikipedia.org/wiki/GNU_GPL



MENDEBERRI

# UN NUEVO MODELO EDUCATIVO QUE POTENCIA EL ROL ACTIVO DEL ALUMNADO

**ESPACIO EUROPEO**
Con la adaptación al nuevo Espacio Europeo de Educación Superior, la Escuela Politécnica se ha convertido en la primera Escuela de Ingeniería del País Vasco y de las pocas a nivel del estado junto a la Universidad Carlos III de Madrid en adaptar su catálogo de titulaciones para el próximo curso.

**LAS CLAVES DEL NUEVO MODELO:**

**I. MODELO LINGÜÍSTICO:** Dentro de los grados ofertados en los campus de Arrasate y Ordizia se apuesta por un modelo lingüístico único, trilingüe, que combine la docencia en euskera, castellano e inglés.

**II. PLANIFICACIÓN ACADÉMICA:** El curso comienza en septiembre y finaliza a finales de junio, con un periodo de descanso para los alumnos de una semana lectiva entre el primer y segundo semestre. La jornada diaria estará repartida en dos jornadas lectivas (turnos) de 5 horas de mañana y tarde donde se concentrarán las clases magistrales, clases de resolución de ejercicios individuales o en grupo, prácticas de laboratorio y desarrollo del proyecto semestral (donde se incluyen las tutorías de proyecto, talleres de competencias transversales, horas de expertos, etc…).

**III. METODOLOGÍA DOCENTE:** Se aboga por la incorporación de metodologías activas en el proceso de enseñanza-aprendizaje que incluyan el desarrollo de un proyecto semestral desde el primer curso.

**IV. ALTERNANCIA ESTUDIO TRABAJO:** Se hace una apuesta clara a favor de que los alumnos puedan alternar estudio-trabajo integrándolo en la organización académica a partir del tercer curso.

**V. MODELO BASADO EN COMPETENCIAS:** El diseño de las nuevas titulaciones, la planificación, desarrollo y la evaluación están orientados hacia la adquisición de competencias. La evaluación de competencias requiere de un sistema de evaluación distinto al actual:

- Planificación de la Evaluación: Proceso de evaluación dentro del calendario del semestre
- Evaluación continua: Los exámenes escritos/orales se realizan a lo largo del semestre - sin periodo de examen con suspensión de clase.
- Evaluación global: Evaluación basada en una valoración conjunta del rendimiento del alumno a lo largo del semestre / curso.
- Recuperación: Evaluación / Recuperación personalizada para los que no superan, integrada en el semestre. Se suprime la convocatoria extraordinaria de septiembre.

**VI. INTERNACIONALIZACIÓN:** La movilidad del alumnado se considera fundamental. Se plantea como objetivo que el 90% de alumnado haga una estancia en una universidad, centro tecnológico o empresa extranjera, durante el grado o el master.

# GRADUONDOKO ESKAINTZA: AUKERA ETENGABEA EZAGUTZA BERRITZEKO



## IKASKETA PROZESUAK EZ DU ETENIK, ETA EZAGUTZA ETENGABE BERRITZEA EZINBESTEKOA DA GAURKO PROFESIONALENTZAT. HORI DA MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN HEZIKETA IRAUNKORREKO ETA GRADUONDOKO ESKAINTZAREN OINARRIZKO ABIAPUNTUA. HELBURU HORREKIN, ESKAINTZA ZABALA DUTE IKASLE ETA PROFESIONALEK MU-N.

Prestakuntza iraunkorra oso garrantzitsua bilakatu da Mondragon Unibertsitatearentzat. Ikasketa ohiturak aldatzen ari dira, eta MUko hiru fakultateetan heziketa iraunkorreko ikastaroen eskaintza, enpresei eskainitakoa eta masterren eskaintza geroago eta zabalagoa da. Goi Eskola Politeknikoko Iraunkor erakundeko zuzendari Xabier Sagarnarentzat, "gaur egun ikasketa prozesua bizitza osora hedatu behar da, izan ere ezagutza etengabe berritzea ezinbestekoa da". Horren haritik, iaz GEPen 2.300 lagunek egin zituzten ikastaro eta graduondoak. Hiru eskaintza mota bereizten ditu Goi Eskola Politeknikoak: katalogo irekian jasotzen dituen ikastaro laburrak, *In company* izeneko ikastaro bereziak eta graduondoak. *In Company* ikasketak dira enpresek eskatuta egiten direnak, era pertsonalizatuan eta enpresen helburu konkretuetara egokituta.

Enpresa Zientzien Fakultatean ere ahalegintzen dira enpresen behar konkretuei erantzuten. Horren adibide da Eroski taldearentzat egiten dituzten ikastaroak. Jose Luis Abaunz da prestakuntza iraunkorreko eta graduondoko arduraduna EZFn. "Eroski berezo estrategikoa da, eta lan asko egiten dugu elkarrekin. Gure asmoa da graduondoko ikasleak lanean integratzea eta haien garapen profesionala bideratzea". Iaz 600 ikasle izan zituzten prestakuntza iraunkorrean eta graduondoko eskaintzan. Bostehun ikaslek egin zituzten ikastaroak eta beste ehun inguruk masterrak.

HUHEZIk hiru gestio unitate ditu, eta guztietan eskaintzen ditu graduondoko ikastaro eta ikasketak. Lanki institutuak kooperatibismoaren gaineko masterrak antolatzen ditu, batez ere, kooperatibetan lanean dihardutenentzat. PTG edo pertsonen eta taldeen garapenaren unitateak ere badu graduondoko eskaintza. Hirugarren unitatea da irakasleen formazioaz arduratzen dena. Iaz, bostehun ikasle izan zituzten, horietatik 278k aditu tituluak edo masterrak egin zituzten. Mariam Bilbatua da graduondoko ikasketen koordinatzailea HUHEZIn. Mariamek dioenez, "irakaskuntza aldatzen ari da eta aurrerantzean unibertsitateen lana izango da langileek eta pertsonek bizitza profesionalean garatzen duten ezagutza ebaluatzea". Ordu kopurua zenbatuz gero, oro har, Mondragon Unibertsitateko hiru fakultateak kontuan izanda, iaz 16.000 ordu eskaini zitzaizkion prestakuntza iraunkorrari eta graduondokoari.

**IKASLEEN PROFIL ASKOTARIKOA** Mondragon Unibertsitateko hiru fakultateetan graduondoko ikasketak eta ikastaroak egiten dituzten pertsonen profila oso bestelakoa da. Goi Eskola Politeknikoan batez ere erdi mailako ardurak dituzten langileak aritzen dira, baita ardura teknikoak dituztenak ere. "Langile horiek produktu berriak egin behar izaten dituzte euren enpresetan, balio erantsia gaineratu

**MASTER EN LA FACULTAD LA CIENCIAS EMPRESARIALES**
Alumnos del master MBA Dirección de Empresas en Oñati. El año pasado cursaron dicho master un centenar de profesionales.



ARGAZKIA: J. ARANZABAL

behar diote produktuari eta horretarako ezagutza eta praktika behar izaten dute". Xabier Sagarnarentzat enpresek dituzten beharrei erantzun behar die unibertsitateak, enpresa horien eskura jarriz ezagutza.

Enpresa Zientzien Fakultatean MBA Executive, Otalora eta Mondragon Taldearekin eskaintzen den masterra egiten dutenen profila oso konkretua da. Zuzendaritza mailako profesionalek egiten dute masterra, talde oso homogeneoak izaten dira. MBA enpresa zuzendaritzaren gaineko master ofizialean, berriz, ikasleen profila oso bestelakoa da. "Gradua amaitu ondoren ikasten jarraitzen duten gazteak ditugu, baita lanean dabiltzan langileak ere, eta atzerritik etortzen zaizkigunak. Oso master aberasgarria izaten da. Lehenengo fasea tronkala da, eta bigarrenean espezialitate konkretu bat aukeratzen dute ikasleek", dio Jose Luis Abaunz-ek. Kirol entitateen zuzendaritzari bideratutako ikasketak ere eskaintzen ditu EZFk. Era berean, Mondragon Taldearen eskutik enpresa proiektuen zuzendaritzaren gaineko masterra ere badago, Mondragon Taldearen barruan negozio berrien aukerak aztertzeko balio duena. Ibilbide profesionala dutenei bideratutakoa da masterra eta 8 hilabeteko proiektua garatu behar izaten dute ikasleek enpresetan.

"Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatean irakasleek, kooperatibetako langileek eta administrazioko funtzionarioek egiten dituzte graduondoko ikasketak" Mariam Bilbatuaren esanetan. Lanki institutuaren eskaintza erabat lotuta dago kooperatibaren eta Arizmendiarrietaren →

pentsamenduaren garapenari. Horrexegatik, kooperatibetan lanean dihardutenprofesionalek jasotzen dituzte eskolak. Irakasleei zuzenduriko beste zenbait master ere baditu Hezkuntza Zientzien fakultateak eta, azken urteotan bi aditu titulu berri jarri ditu abian: "XXI.mendeko hezkuntza erronkak, kulturartekotasuna eta aniztasuna" eta "euskal kulturgintzaren transmisioa". Bigarren horretan 60 lagunek parte hartu dute oraingo ikasturtean eta datorrenean ere antolatuko du HUHEZIk. Gainera, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateak laugarren perfileko heziketa eskaintzen dizkie Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako administrazioetako eta udaletako laurehun langileri IVAP institutuan.



**MONDRAGON UNIBERTSITATEA, ONDO KOKATUTA** Gertuko unibertsitateekin alderatuta, Mondragon Unibertsitatea ondo kokatuta dago, industria eremu paregabean eta berrikuntza guneetatik gertu. Horrek balioa eransten dio MUren graduondoko eskaintzari. Kooperatiben esperientzian oinarritutako eskaintza egiteko aukera duelako, eta enpresekin harreman estua duelako. Guzti horrek estilo eta nortasun berezia ematen dio prestakuntza iraunkorreko eskaintzari. Gainera, nazioartera begira, aurrera pausuak eman dituzte azken urteotan. "Mondragon Taldearen nazioarteko ezarpena aprobetxatu behar dugu, hori da-eta gure indargunea. Ezarpen horri laguntza emateko MUk eskaintza berezia egin behar du, eta horrela lortuko dugu arrakasta" dio Jose Luis Abaunz-ek.

Xabier Sagarnaren ustez, nazioarteko unibertsitateek egiten duten eskaintzaren aurrean Mondragon Unibertsitateak ezin du lo hartu. Iraunkor erakundeko zuzendariarentzat, Europarekin alderatuta, MUren prestakuntza iraunkorrak asko hobetu beharra du, baina pausu sendoak ematen ari dira horretarako.

**GRADUONDOKO IKASKETA BERRIAK** Erakunde, enpresa eta kontsultoreekin kolaborazioak ezarri ditu Mondragon Unibertsitateak, kanpoko errekurtsoei probetxua ateratzeko eta hezkuntza eta prestakuntza iraunkorraren sarea eraikitzen jarraitzeko. Etorkizunera begira, eskaintza areagotu nahi du MUk.

Hain justu ere, Enpresa Zientzien Fakultatea eta Goi Eskola Politeknikoa lanean ari dira martxan jartzeko *'Project Management'* gaineko master berri bat. XXI.mendeko enpresari begira planifikatu nahi dute aditu titulua, Jose Luis Abaunz-en esanetan, etorkizuneko enpresarioen perfilera egokitutako ikasketak prestatu behar dira. "Orain arte perfila oso industriala izan bada ere, etorkizuneko zuzendari eta kudeatzaileek beste perfil bat beharko dute eta hori abiapuntu hartuta lanean dihardugu ikasketa berriak abian jartzeko".

Informazio gehiago nahi izanez gero, Mondragon Unibertsitatearen graduondoko ikasketa eta prestakuntza iraunkorreko eskaintzaren gainean, fakultate bakoitzeko informazio guneetan aurki dezake interesatuak. Gainera, mondragon.edu webgunean ere informazioa badago, eskaintza guztiarekin eta aukera ezberdinekin.

**ALUMNOS EXTRANJEROS ENTRE NOSOTROS**
Cada vez más alumnos que cursan sus estudios de posgrado en Mondragon Unibertsitatea provienen de diversos paises de Europa, América del Sur y Africa.


ARGAZKIA: J. ARANZABAL

# LA FORMACIÓN, CLAVE PARA AVANZAR EN INNOVACIÓN Y COMPETITIVIDAD

El pasado mes de abril iniciamos la segunda edición del Programa de Diseño Mecánico, en colaboración con Iraunkor y Saiolan, con una duración de 220 horas de formación presencial y 200 horas de proyecto tutorizado. La empresa pone en marcha así, por segunda vez, un programa que tiene por objeto la especialización de las nuevas incorporaciones, que pretende acelerar su periodo de aprendizaje, y la actualización de conocimientos de los profesionales consolidados.

Electrónica, robótica, visión, informática industrial, gases, materiales, tratamientos, son otras de las áreas de conocimiento que ocupan un lugar preferente en nuestro plan de formación y en la actividad formativa que desarrollamos desde nuestro centro tecnológico (ULMA Packaging Technological Center).

La estructuración de la formación técnica en el UPTC nos ha permitido ampliar nuestra oferta formativa, adaptarla a la realidad de nuestro negocio y crear un entorno flexible para el aprendizaje.

Además de la formación técnica más orientada al desarrollo horizontal, la formación en habilidades también ocupa un lugar importante en nuestro plan de formación, y una parte importante de nuestro presupuesto lo destinamos a la formación en idiomas.

ULMA Packaging ha definido un ambicioso plan de negocio, con dimensión internacional, en un sector donde la introducción de las tecnologías es fundamental para el logro del éxito que persigue. Nuestra estrategia nos ha convertido en un negocio que necesariamente tiene que atender al reto de estar perfectamente cualificada y capacitada y la formación es la herramienta fundamental, permanente en el tiempo, para ello. En ULMA Packaging la formación recorre un camino en paralelo al de la estrategia, y es uno de los factores más importantes para avanzar en competitividad e innovación, y la vía para la consecución de los objetivos estratégicos en un entorno de progreso basado en el conocimiento.

La formación es además para nosotros un elemento importante a la hora de atraer y retener profesionales, y un aspecto clave en la generación de compromiso.

*“La formación es un elemento importante a la hora de atraer y retener profesionales, y un aspecto clave en la generación de compromiso”*



**Nuria Agirre**
Ulma Packaging-eko Giza Baliabideetako zuzendaria

ALECOP

# KOOPERATIBEN ETA MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN ARTEKO GILTZARRIA

MONDRAGONEKO KOOPERATIBAGINTZAREN DINAMIKAN, ALECOPEK FUNTZIO BEREZIA DU, ETA IZAN DU, HEZKUNTZA ETA ENPRESA ESPARRUEN ARTEKO HARREMANETAN: IKASLEEI LAN EGITEKO AUKERA EMATEA, IKASTEN ARI DIREN BITARTEAN, MU ETA KOOPERATIBEN ARTEKO GILTZARRI BAT BALITZ BEZALA. BAINA ZEIN DA HORREN OINARRIA? ZERGATIK SORTU ZEN ALECOP?

XX. mendearen 60ko hamarkadaren hasierako urteetan, Arrasateko Eskola Profesionaleko (egungo Eskola Politeknikoa) ikasle kopurua izugarri hazi zen. Horietariko asko bailara kanpoko herrietatik zetozen: Markina, Azpeitia, Azkoitiatik,... Lana eta praktiken arteko txandaketa lortzea jadanik helburu bat zen garai hartan. Ordea, bertako enpresek ez zituzten kanpoko ikasleak lanerako hartu nahi. Ikasle bakoitza gastu handia zen enpresarentzat, langile arrunt baten bezain beste. Errentagarria zitzaien bide bakarra, bertako ikasleak hartzea zen, ikasketak amaitzen zituenean enpresan gelditzen zirelako, kanpoko ikasleekin normalean gertatzen ez zena. Matrikulazioak gora jotzen zuen bitartean, ikasleek zaila zuten inguruan lan egitea.

Bestalde, bailarako familietako egoera ekonomikoa zaila zela-eta (soldata baxuak eta seme-alaba asko jateko premian), gazte askok ezin zituzten gustuko ikasketak egin. Eskolan zeudenen artean ere, laurdenak ez zituen ikasketak amaitzen.

Arazo horien aurrean, ideia bat bururatu zitzaion Arizmendiarrietari: ikasleak antolatu eta lan zerbitzua eskaintzea enpresei. Modu horretan, ikasleek soldata eta lan esperientziaz jabetzeko aukera izango zuten.

Ideia hori azaltzeko, Arizmendiarrietak Batzar Orokorrera dei egin zien ikasleei. Lehenengo batzarrera 400 bat ikasle hurbildu omen ziren, bigarrenera berriz 15 bat lagun eta azkenekora 4 besterik ez, baina aurrera jo zuten. Arizmendiarrietak irakasle bat lortu zuen eta lau ikasle horiekin batera DIE (Departamento Industrial Escolar delakoa) osatu zuten.

Zenbait hilabete geroago, DIEko lehenengo kontratua iritsi zen: Ularco (Fagor) San Andres-en egiten ari zen eraikin berriarentzako itxiera-panelen eraikuntza, produkzio planta eta bulegoak banatzeko. Gero beste lan batzuk etorri ziren: Zenbait eraikinentzako instalazio elektrikoak (Eskolako Iturripeko eraikina, Eguzki Dorrea, Aretxabaletako Portasol auzoa,...). Lan horiek burutu ostean, Arizmendiarrieta benetan ohartu zen ikasleek osaturiko enpresa baten beharraz eta 1965 arte DIE zenak Alecop izen komertziala hartu zuen, bere ibilbidea Eskola Politeknikoko lokaletan hasiz.

Enpresaren ezaugarri bereizgarria bere osaketa zen: soilik ikaslez osatua. Alecopen sorrerak heziketa-lana esperientziaren sendotzea ekarri zuen.

Berrogei urte baino gehiago pasatu ondoren, lan-prestakuntza arloa behar ekonomikoa baino inportantzia handiago hartzen ari da, eta horrek bere eboluzioa izan du Alecopen, eta izaten ari da, baina hori hurrengo baterako utziko dugu.



LA COOPERATIVA ALECOP lleva trabajando más de cuarenta años ligada a la Escuela Politécnica. Durante todos estos años ha desarrollado una tarea de formación de los alumnos, colaborando con Eskola en la inserción laboral de los mismos.

# INAUGURACIÓN DE UN "AULA" DE COMPONENTES DE ALTA CUALIFICACIÓN



**LA INAUGURACIÓN** del Aula de Componentes Fue presidida por José María Aldekoa, presidente de Grupo Mondragón; y el Rector de Mondragon Unibertsitatea, Iosu Zabala.

